



Langileak kudeatzeko zuzendariaren 2023ko martxoaren 1eko ebazpena, zuzendari berarena 2023ko otsailaren 16ko ebazpena aldatzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2022/2023ko, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

AURREKARIAK

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak (2022ko urriaren 14koa EHAA), Katedradunen, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionario irakasleen artean 2022/2023ko ikasturtean, estatu mailako, lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeitaseigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Akatsak antzeman dira 2023ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez argitaratutako destinoen behin-behineko esleipenaren prozesu informatikoan: horiek zuzendu ondoren, aipatutako Ebazpenak argitara eman zuena aldatzen duen behin-behineko esleipena argitara eman.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 16ko Ebazpena, zeinaren bidez argitara ematen Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko irakasle funtzionarioen estatu-mailako 2022/2023 lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena, ebazpen horretan atzemandako akatsak zuzendu ondoren.



Bigarrena.- Erreklamazioak eta uko egiteak aurkezteko beste epe bat irekitzea, **2023ko martxoaren 2tik 8ra**, biak barne. 2023ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez irekitako epean aurkeztutako erreklamazioak eta uko egiteak **berriro aurkeztu beharko dira** ebazpenaren Ebatzi dut zati honetan adierazitako epean, nahiz eta aldaketa horrek ez izan eraginik erreklamazio edo uko egite hori eragin duen esleipenean.

Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 1ean